



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2019KO IRAILAREN 26an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2019ko irailaren 26an, arratsaldeko 18:04 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena eta Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Maider Agirre Mugika(O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) eta Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURAKO AKTAREN
ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2019ko uztailaren 24ko Ohiko Osoko Bilkurari dagokion akta.

Aktaren onarpena bozkatu ondoren, aho-batez onartzen da.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 26 DE SEPTIEMBRE DE
2019.**

En Olaberria, a 26 de septiembre de 2019, siendo las 18:04 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O) , Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU)

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA
DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

- Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria del 24 de julio de 2019.

Se procede a la votación, quedando el Acta aprobada por unanimidad.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 116/2019tik 133/2019 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

“ 117/2019 Nazioarteko lankidetzarako eta hirugarren munduaren garapenerako diru-laguntzen banaketa.

- Asociacion ALBA: 7 845 Euro (Madrilen dute sedea)
- ONG Ayudemos a un niño: 3.000 Euro (Almerian dute sedea)
- Lazkaoko Rwanda taldea: 9.250 Euro
- Fundacion Etiopia Utopia: 4.940 Euro

Hauei diru laguntza emateko irizpideak zein dira? Errespetatzen ditugu eta ez degu dudan jartzen beharra izango ez dutenik, baino hauetako batzuk Madrilen eta Almerian dute egoitza. Agian askok ez dute gaitasunik BOEko deialdiak jarraitzeko hurrengorako buelta bat eman nahi diogu. Hauek lantzeko baldintza pleguak eskatzen ditugu.”

Alkateak eta ongizate sozialeko burua den Elixabet Canales andreak Urkiola jaunari, diru-laguntza hauen inguruan aurrera eramanez den prozedura azaltzen diote, ondoren adierazitako puntuetan laburbilduz:

- Laguntza hauek lehiaketa bidezko prozedura baten baitan eman dira, oinarri batzuen onarpena dela medio eta zenbait baldintzen konplimendu pean.

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 116/2019 al 133/2019.

Los corporativos quedan al corriente.

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra para manifestar lo siguiente:

El Alcalde y la presidenta de la comisión de bienestar social Elixabet Canales, exponen al Sr. Urkiola el procedimiento llevado a cabo en relación a estas ayudas, cuyo resumen es el siguiente:

- Estas ayudas se han concedido a través de un procedimiento concursal, con la aprobación de unas bases y bajo la condición del cumplimiento de ciertos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

- Lehiaketa arautzen duten oinarrietan ikusten den bezala, pisu gehien duen balorazio irizpidea eskatzaileek Olaberriarekin duten lotura da.
- Edozein kasutan eta kontutan izanda diru-laguntza hauen banatze prozedura berdina izango dela hurrengo urtean, oinarriak gauzatzerakoan egoki diren edozein ekarpen egin ahal izango dira.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkezten diren fakturak, bere onarpenerako:

requisitos.

- Tal y como se reflejan en las bases que rigen el concurso, el criterio de valoración que más peso tiene es el vínculo de los solicitantes con Olaberria.
- En todo caso, y teniendo en cuenta que el procedimiento de concesión va a ser el mismo el siguiente año, se podrán hacer las aportaciones que se consideren oportunas a la hora de elaborar las bases.

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	ALBERGUE DEL PAS S.L.	B39363759		3	5.735,00 €
2	LIMPIEZAS ABANDO S.L.	B48848634		1907908	4.871,93 €
3	GIPUZKOAKO URAK	A204714623		960000086	4.767,30 €
4	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426		31	8.266,91 €
5	CONSTRUCCIONES MB ANTIO S.L.L.	B75126789		165/2019	47.832,67 €
6	GOIHERRIKO TRESNA KOOPERATIBA	F20372975		401	4.501,20 €
7	SOROA ARQUITECTOS, S.L.P.	B20758884		57	8.266,91 €
8	GURUTZE GORRIA GOIERRI			EKARPENA	4.755,00 €
9	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426		32	7.348,95 €
10	AXA SEGUROS	A60917978		BIZITZA ASEGURUAK	3.116,84 €
11	ANGUAS MARTIN ISIDRO	15981499H		530	2.444,95 €
12	ANGUAS MARTIN ISIDRO	15981499H		528	2.444,95 €
13	ANGUAS MARTIN ISIDRO	15981499H		529	2.444,95 €
14	LIMPIEZAS ABANDO S.L.	B48848634		1909195	4.871,93 €
15	EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793		78/2019	4.087,38 €
16	INDENORT PV S.L.	B01482587		98	4.456,30 €
17	OZIONA SOLUCIONES DE ENTRETENIMIENTO	B70329321		18	48.337,08 €
18	ZERKI KOOP. ELKARTE TXIKIA	F75042309		179	6.655,00 €
19	ZERKI KOOP. ELKARTE TXIKIA	F75042309		180	6.655,00 €
20	ZERKI KOOP. ELKARTE TXIKIA	F75042309		181	6.655,00 €

Alkateak hitza hartzen du zera azaltzeko: 16., 17., 18., 19., eta 20. zenbakidun fakturak ospatutako batzorde informatzaileak ospatu ondoren aurkeztu ziren udaletxean, eta lehen bailehen udalkideen esku jarri dira.

Alkateak dio, lehenik eta behin udalkideek erabaki beharko dutela faktura hauek osoko-bilkura honetan onarpenaren objektu izango diren edo ez.

Proposamena bozkatzeko da, aho-batez onartzen delarik.

Ondoren, fakturen onarpenerako bozketa hasten da, faktura zerrenda gehiengo absolutuz onartzen delarik, EH-BILDU taldeko zinegotzien

El Alcalde toma la palabra para indicar que las facturas n.º 16, 17, 18, 19, 20 se presentaron con posterioridad a la celebración de la comisión informativa, aunque han sido puestas a disposición de los Corporativos.

El Alcalde informa de que se procederá a decidir si estas facturas entran dentro de la relación que va a ser objeto de aprobación en esta sesión plenaria.

Se procede a la votación de la propuesta, quedando aprobada por unanimidad.

Acto seguido, se procede a la votación para la aprobación de las facturas, aprobándose la relación de facturas por mayoría



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

abstentzioarekin.

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

“Abstenitu egiten gara. Garbiketa Limpiezas Abando, udala garbitzen duena (Bilbo), herriko parkea egin duena Oziona (Galizia)...Lan ezberdinak hartzeko kontrataziorako pleguak begiratu eta azertu egin nahi ditugu. Gertutasunak, hizkuntza irizpideak, langileen baldintzak... lehenetsuna izan behar dute udalak kontratatzeko garaian. Hauek lantzeko baldintza pleguak eskatzen ditugu.”

Alkateak zera erantzuten dio: Udaletxean kontratazio plegutan inguruko enpresen aldeko baldintzak sartzearen aldekoak gara, beti ere legaltasuna errespetatuz. Izan ere, kontratu publikoen inguruan, kontratu Legeak lizitazioetara aurkezteko askatasun handiagoa edukitzeko apostua egiten du. Hori dela eta, kontratazio plataforma bat eratu du, derrigorrez erabili beharrekoa eta lizitazaila guztiei irekia, ez soilik hemengoei, kanpokoei baita ere.

Halere ongietorriak izango dira, legea betez, gure enpresentzat onuragarriagoak diren baldintzen inguruko proposamenak.

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2019ko irailaren 09ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira Udal eraikinen garbiketa kontratuaren esleipena. **3.144.614,30 euro**

absoluta, con la abstención de los concejales del grupo EH-BILDU.

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra y manifiesta lo siguiente:

El Alcalde le responde que el Ayuntamiento intenta incluir en los pliegos de contratación condiciones dirigidas a beneficiar a las empresas cercanas, pero siempre respetando la legalidad. Es precisamente la Ley de contratos la que apuesta por que, en relación a los contratos públicos, se tenga la mayor libertad de acceso a las licitaciones y por ello se ha creado una plataforma de contratación de uso obligatorio y abierta a todos los licitadores no solo de aquí, sino también de fuera.

Sin embargo, son bienvenidas las propuestas que, cumpliendo la Ley, permitan introducir condiciones más favorables a nuestras empresas.

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 09 de de septiembre de 2019.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.144.614,30 euros.**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Los corporativos quedan al corriente.

- **3/2019 kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatea: behin-behineko onarpena.**

- **Modificación de créditos 3/2019, modalidad transferencia de créditos: aprobación inicial**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzairen.

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda:

BAKARRA: Gehiengo absolutuz, EH-BILDU taldeko abstentzioarekin, onarpena ematea 3/2019 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2019ko aurrekontuaren barruan, edukia honako hau izanik:

ÚNICO: aprobar por mayoría absoluta, con la abstención del grupo EH-BILDU el Expediente de Modificación de Créditos, nº 3/2019 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2019, cuyo contenido es el siguiente:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.601.153.20.03 2019	IHURRE AUZKO OBRAK - 2019	225.000,00	58.980,00	166.020,00
	GUZTIRA	225.000,00	58.980,00	166.020,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
-------------	-------	--------------------	------------	--------------------



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

1 0000.211.323.00.01 2019	HERRI ESKOLAKO MANTENIMENDUA	1.500,00	7.350,00	8.850,00
1 0000.421.162.10.01 2019	SASIETA MANKOMUNITATEA - BILKETA %70	61.675,00	7.030,00	68.705,00
1 0000.421.162.20.01 2019	SASIETA - SOLIDOEN KUDEAKETA %5	4.500,00	450,00	4.950,00
1 0000.421.162.30.01 2019	SASIETA - TRATAMENDUA (%25)	24.300,00	250,00	24.550,00
1 0000.622.342.00.02 2019	KIROL INSTALAKUNTZEN INBERTSIOA - PADEL	0,00	20.000,00	20.000,00
1 0000.211.459.00.01 2019	BESTELAKO ERAKUNTZA PUBLIKO MANTEN	10.000,00	5.000,00	15.000,00
1 0000.682.430.00.01 2019	ZEZILIONEA OSTATUAREN LEIHOEN KONPONKETA	0,00	12.900,00	12.900,00
1 0000.226.338.00.06 2019	JAIETAKO GASTUAK	45.000,00	5.000,00	50.000,00
1 0000.211.337.10.01 2019	JUBILATUEN EGOITZA-MANTENIMENDUA	1.500,00	1.000,00	2.500,00
	GUZTIRA	148.475,00	58.980,00	207.455,00

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiolak zera galdetzen du:

- Kreditu aldaketan egiterakoan, zein da irizpidea?
- Kopuru batetik gorakoak?
- Edozein aldaketa egin ahal da?

Alkate eta idazkari kontu-hartzailearen artean erantzuten diote, ondoren egiten den laburpenaren arabera:

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola, pregunta lo siguiente:

- Cual es el criterio para llevar a cabo una modificación de créditos?
- Superior a algún importe?
- Se puede realizar cualquier modificación?

Entre el Alcalde y la Secretaria-interventora le responden lo que se resume a continuación:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aurrekontu bat egiteko garaian, aurrekontua baldintzatzen duen zenbait faktore daude, nagusienak hauek izanik:

- Gastu arau bat dago, zeinak urtean zehar gastatutako kopuruari gehitu ahal izango zaion gastu portzentaia finkatzen duen. Faktore honek, hurrengo aurrekontuan gastu bezala sartu dezakezun kopurua mugatzen du.

- Aurreikusia dauden diru-sarrerak, gastu kopurua mugatzen dute. Ezin dira aurrekontuan sartu diru-sarrerak gainditzen dituzten gastuak.

- Aurrean aipaturiko zioak direla eta, aurrekontuan sartu ezin daitezkeen gastuak, diruzaintza gerakinaren parte izatera igarotzen dira.

Aurrekontua ustez indarrean egongo den urtean, bertan aurreikusiak ez dauden bestelako gastu beharrak sortzen badira, hauek egikaritu ahal izango dira kreditu aldaketen bidez, gehienetan:

- Ezin baduzu gastu bat aurrekontuetan sartu eta urtean zehar aurreikusi ez den gastu bat sortzekotan, kreditu aldaketa baten bidez bideratu daiteke diru-zaintza gerakina erabiliz edota kreditu transferentzia bidez superabita duen beste aurrekontu-sail batetik ateraz.

Ondorioz, legeak ezarritako baldintzak betetzen badira eta diru nahikoa egotekotan, kreditu aldaketak gauzatu daitezke, kopuru muga zehatzik gabe.

A la hora de elaborar un presupuesto, hay distintos factores a tener en cuenta que te condicionan el presupuesto, básicamente son:

- Hay una regla de gasto que anualmente te informa del porcentaje de gasto que puedes ampliar con respecto a lo efectivamente gastado en el ejercicio. Esto es un factor que limita lo que puedes incluir como gasto en el presupuesto del ejercicio entrante.

- Los ingresos previstos a obtener limitan el gasto. No se pueden incluir en el presupuesto más gastos que lo previsto a ingresar.

- El montante que, por las razones anteriores, no se permite incluir en el presupuesto, pasa a formar parte del remanente de tesorería.

Si a lo largo de todo el año que previsiblemente se aplica el presupuesto, surgen necesidades de gasto, que no estaban incluidos en el mismo, éstos se pueden llevar a cabo a través de las modificaciones de crédito, en la mayoría de los casos:

- Si no has podido incluir un gasto en el presupuesto, o surge otro no previsto a lo largo del año, se puede llevar a cabo a través de una modificación de créditos a cargo del remanente de tesorería o a través de una transferencia de créditos, a cargo del crédito de otra partida presupuestaria que se encuentre en superávit.

En conclusión, siempre que se cumplan las premisas legales y haya crédito presupuestario para ello, se puede llevar a cabo una modificación de créditos, sin límite de



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

cantidad.

- **4/2019 kreditu aldaketa, kreditu gehigarri modalitatean: behin-behineko onarpena.**
- **Modificación de créditos 4/2019, modalidad créditos adicionales: aprobación inicial.**

Gaia udal-kideei azaldu zitzairen joan zen batzorde informatzailean.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, EH-BILDU taldeko abstentzioarekin:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del grupo EH-BILDU:

LEHENENGOA: hasierako onarpena ematea 4-2019 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu gehigarri modalitatean, Udalaren 2019ko aurrekontuaren barruan, ondoren azaltzen den eran:

PRIMERO: aprobar inicialmente el Expediente de Modificación de Créditos, nº 4-2019 en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2019, en los siguientes términos:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.600.151.00.01 2019	HIGIEZINEN EROSKETA	0,00	300.000,00	300.000,00
GUZTIRA		0,00	300.000,00	300.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2019	DIRUZAINZAKO GERAKINA - GASTU OROKOR	300.000,00



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

FINANTZAKETA GUZTIRA	300.000,00
----------------------	------------

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Urkiola jaunak honako aipamen hauek egiten ditu:

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola realiza las siguientes afirmaciones:

“Udaleko idazkariak txostenean azaltzen duenari ekarpen batzuk egin nahiko genizkioke. “Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezela egiaztatuta dago, alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita” esaten du txostenak. Kreditu gehigarrien proposamenean “Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko” aipatzen da. Higiezinen erosketa 300.000 eurokoa proposatzen da, Elizaren parean eta Zezilione ostatu atzean dagoen “Taberna txiki” izandako etxea ezagutzen dugun moduan. Txostenak dioen haritik... “Udal zerbitzuen premiei eta obligazioei”, gai hau hartu dezagun patxadaz. Aurreko lan batzordeetan hitz egin dugu gai honetaz, eta udalak duen asmoa azaldu du etxe hau erosi eta ondoren botatzeko. “Etxe hau eta bere lursailak erosteko, familiarekin eraman beharreko prozesua, gustatuko litzaidake lan talde bat osatuta, prozesu hau aurrera eramatea” Alkateak esandako hitzak hartu nahi ditugu. Prest gaude prozesu honetan parte aktibo izateko. Eskua luzatzen dizuegu. Taberna txikiko etxea botatzeko asmoa bada, aurretik zein izango den emango diogun erabilera eremu horri egin beharreko ariketa behar beharrezkoa izango da. Etxea bota eta autoa aparkatzeko lehentasuna emango dion parking haundi batekin ez genuke geratu nahi. Beste erabilera batzuek denon artean aztertu nahi genituzke. Plaza inguruko eremu honi zein izan daitekeen erabilera egokia emateko patxadaz hartzea eskatzen dugu. Herritarrekin parte hartze prozesu bat irekitzea ere beharrezko ikusten dugu. Parte aktibo bihurtzea herritarra. Oraindik ez dakigu zer egin nahi den eremu horretan. Udaleko arkitekto eta teknikariek gai hontaz hitzegiteko bilera bat egitea nahiko genuke.”

Alkateak erantzuten dio laburbilduz: une hoentan hasierako pausu bat ematen ari garela, ondasun horiek erosteko dirua gaitzen hain zuzen ere, eta aurrerantzean Udalak erabakiko duela horren destinua eta jarraitu beharreko prozedura.

El Alcalde le responde lo siguiente, lo que recoge de forma sucinta: en este momento estamos en una etapa muy inicial, en la de la habilitación del crédito para adquirir los inmuebles. De aquí en adelante, será el Ayuntamiento el que decida el destino de los mismos y el procedimiento a llevar a



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

cabó.

Galdera eta erreguak

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Urkiola jaunak honako galdera-erreguak egiten ditu:

- **Lan ezberdinen kontratazioa**

Lan ezberdinen kontratazioarako, udalean ditugun baldintza pleguen txostena aztertu nahi dugu. Lehenago aipatu dugun moduan, gertutasunak, hizkuntza irizpideak, prebentzioan, langileen baldintzak... lehenetsia izan behar dute udalak kontratazeko garaian. Kontratazioarako pleguak eskatzen ditugu, ikusteko.

Alkateak, horretarako arazorik ez dagoela erantzuten dio.

- **Eliza azpian egingo diren etxebizitzak**

Frontoiaren azpi aldean, Tanko enpresak lur eremu bat erosi du, bertan etxeak egiteko. Zein fasean gaude? Nolako etxeak egin nahi dira? Hurrengo lan batzordean, gai honetaz hitz egitea eskatzen dugu. Xehetasun azterlana eskatzen dugu, jarraipena egiteko.

Egungo egoera: xehetasun azterlana, ingurumen dokumentuarekin batera Eusko Jaurlaritzako ingurumen departamentuan daude, zoruaren kalitatearen deklarazioa izapidetzen.

Ruegos y preguntas

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola realiza los siguientes ruegos y preguntas:

- **Contrataciones municipales**

Queremos examinar los pliegos de contratación que tenemos en el Ayuntamiento. Tal y como hemos dicho antes, la proximidad, los criterios de idiomas, de prevención, las condiciones laborales... tenemos que priorizar a la hora de contratar. Solicitamos los pliegos, para examinarlos.

El Alcalde le responde que no hay ningún problema.

- **La viviendas a ejecutar bajo la iglesia**

En la parte de abajo de la iglesia, la empresa Tanco ha comprado un terreno para ejecutar allí unas viviendas. En qué fase estamos? Qué tipo de viviendas se quieren hacer? En la siguiente comisión de trabajo pedimos hablar de este tema. Pedimos el estudio de detalle, para hacer un seguimiento.

Estado actual: el estudio de detalle, junto con el documento ambiental, se encuentran en el departamento de medio ambiente de Gobierno Vasco, tramitándose la declaración de calidad del suelo.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak, etxebizitza hauen inguruko xehetasunak ematen dizkio.

El alcalde le expone los pormenores de todo lo que afecta a estas viviendas.

- **Euskara berritzeko plana**

2008. Urte inguruan, EBP (Euskera biziberritzeko plana) egin zen. Honen inguruan udalean zer daukagun ikusi nahiko genuke, dagokigun euskera batzordeari hasiera bat emateko.

Alkateak, gaiaren inguruan udaletxean dagoen guztia bere esku jartzen duela dio.

- **Plan de Euskara**

Hacia el año 2008 se llevó a cabo un Plan para impulsar el euskara. Queremos saber que hay en el Ayuntamiento acerca del tema, para dar inicio a la comisión de euskara de la que somos responsables.

El alcalde le responde que pone a su disposición todo lo que hay al respecto en el Ayuntamiento.

- **Zezipilio Enearen ustiaketa**

“Zezipilio-enea ostatua zein eratan ustiatzen den berraztertu nahi degu. Kontratua begiratu, ematen duten zerbitzua aztertu, ordutegiak, langileen baldintzak. Herriko ostatu batek herriari eman diezaiokeen zerbitzu mota, oso lehenetsunezkoa dela iruditzen zaigu. Olaberri bezelako herri sakabanatu batentzat, bilgune oso garrantzitsua da. Auzotako herritarrak biltzeko, herritarrak elkartzeko, gure aisialdi librean herrian geratzeko eta kanpora joateko tentazio gutxiago izateko. Zer egin dezakegu horretarako? Diagnosi bat egin nahi dugu, eta beraz egiten asmatu. Guztion onerako ereduak asmatu. Aldaketa metodoa zein izan behar duen hitzartu. Eta beti esango duguna... Udalak egin dezake, baina herritarrek ere bai! Egin dezagun beraz hau ere herritarrekin. Ihurre auzoan etorkizunari begira ostatu bat jartzeko formulak bilatzeko ere prest agertzen gara.”

Alkateak, Ihurre auzoan beste herri-ostatu bat egiteko aurreikuspenaren berri ematen du.

El Alcalde da a conocer la intención de crear otro herri-ostatu en el barrio de Ihurre.

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

18:50-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du

cuando son las 18 horas y 50 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

ALKATEA / EL ALCALDE

IDAZKARIA / LA SECRETARIA